



Zizur Nagusia

KULTUR PROGRAMA

Urria // 2026



zizurmayorcultura.es/eus



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

URRIA

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

10/04 Haur zinema

**HEIDI. KATAMOTZAREN
ERRESKATEA**

10/08 Zineforuma

CALLADITA

10/09 Antzerki inprobisazioa

DE IMPROVISO SHOW

10/11/ Haurrentzako antzerkia

**AMARES.
AMAR LOS MARES**

10/16 Musika

ANE MARTIJA

10/23 Musika

**ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA
BANDA ETA BAZTAN
GAITEROAK**

10/25 Musika

**BULGARIAN NATIONAL RADIO
CHILDREN'S CHOIR**

10/30 Antzerkia

**INSTRUCCIONES PARA
ALBERTO GONZÁLEZ**

**AHAL DUZUN GUZTIETAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ.**



**Eskatu aurikularra
edo begizta
magnetikoa
atezaindegian**

Antolatzailea



**Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor**

Diru-laguntzailea

**Gobierno
de Navarra**  **Nafarroako
Gobernua**



**RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA**



ANTZERKI BONUA

11€

Antzerki inprobisazioa

DE IMPROVISO SHOW

Antzerkia

INSTRUCCIONES PARA ALBERTO GONZALEZ

DESKONTUAK

Gazte eta ikasle txartelak (12 eta 30 urte bitarte)

4 euroko edo 4 eurotik gorako sarreretan %50eko murrizketa. Ez da aplikatuko haur ikuskizunetan.

Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

Langabetuak

Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

Irailaren 23ko (asteazkena)
09:00etatik aurrera.

Txarteldegia

Astelehenetik ostiralera
09:00 - 21:00

Larunbatetan
10:00 - 14:00
17:00 - 21:00

Igande eta iaiegunetan
12:00 - 14:00

Ikuskizuna hasi baino
ordubete lehenago.

Online (gasturik gabe)

zizurmayorcultura.es/eu

Egiatzatu zure erosketa eta
ez ahaztu sarrera.

NORMAS BÁSICAS

Puntualtasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak:
Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak:
Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak: Adin gomendatura doitzea aholkatzen da:

- 3 urtetik beherakoek:
Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen..

- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Haur Zinema

HEIDI. KATAMOTZAREN ERRESKATEA

TOBY SCHWARZ ETA AIZEA ROCA BERRIDI

URRIAK 4 IGANDEA

18:00 · 78 min · 3€ · Euskaraz

Heidi zoriontsu bizi da aitonarekin batera Suitzako Alpeetan, naturan bete-betean eta mendian aske. Uda kostaldean emateko gonbidapena jasoko du; ilusioa egiten dio abentura zirraragarriak, baina, zaurituta dagoen katamotz bat aurkituko du eta dena aldatuko da.

Hari laguntzeko prest dago eta, Peter lagun minaren laguntzarekin, zaindu egingo du eta familiaren-gana eramango du mendian. Nola nahi ere, maite duten guztia arris-

kuan jarriko du anbizio handiko enpresari batek: zerrategi bat eta katamotz-tranpak jarri nahi ditu mendian.

Johanna Spyriren klasikoan inspiratutako abentura berri honetan, Heidik natura eta bere etxea babestu beharko ditu zirraraz eta paisaia ikusgarri josita dagoen eta ingurumen-mezu indartsua darion istorio batean.



Zineforuma

CALLADITA

MIGUEL FAUS

URRIAK 8 OSTEGUNA

19:00 · 92 min · 2€

Ondoren solasaldia:

MARÍA CASTEJÓN LEORZA.

Historialari eta zinema kritikariarekin

Ana Kolonbiatik etorri berria da, eta luxuzko etxe batean lan egiten du, non arte-merkatarien familia aberats batek uda pasatzen duen. Neska gazteak egun osoa pasatzen du lanean, kontraturik gabe, udaren amaieran baldintza duinak lortzeko promesapean, betiere diskretua eta isila bada. Baina Gisela aldame-neko etxeko langilearen bitartez,



Anak jakingo du gauzek ez dutela zehazki esan dioten bezala funtzionatzen, eta udan Costa Bravan gehiago dibertitzen ikasiko du.



Antzerki inprobisazioa

DE IMPROVISO SHOW

DE IMPROVISO

URRIAK 9 OSTIRALA
20:00 · 80 min · 8€

De Improviso Show edo DIShow antzerki inprobisazio ikuskizuna da, aretoko gazte eta helduei zuzendua.

Ikusleen proposamenetatik abiatuta bat-bateko istorioak sortzen ditu taldeak, eta hori da, hain zuzen ere, gaueko benetakako protagonista. Istorio hauek

paregabeak dira eta topaketa errepikaezin honen emaitza den unibertso iragankor batean murgiltzen dituzte taldea eta publikoa.

Barrea eta jolasa sorrarazten dituen bat-bateko komedia ikuskizuna.





Haurrentzako antzerkia
AMARES. AMAR LOS MARES
 PRODUCCIONES MAESTRAS

URRIAK 11 IGANDEA
 18:00 · 55 min · 4€ · Gaztelaniaz

Neguko gau ekaiztsu batean, Pepa "The bottle" pirata zaharra aurkitu genuen, bost kontinente-etan zehar egindako ibilaldi luzeak gogoratuz. Bere bizitzako liburua-rekin batera, iragan baten abenturak eta zoritxarrak biziko ditugu "El Ulises" itsasontzian.

Peparekin gogoratuko dugu nola iritsi zen Japoniara, nola defendatu zituen animaliak Lakosen, nola bidaiatu zuen Yemayak kulunkatu-tako olatuen gainean, nola dantza-tu zuen Ozeanian edo nola erabat zaharturik, Eskoziako labarretara itzuli zen, jaio zen tokira.




Musika
ANE MARTIJA
 BIRA NAFARROAN
 BARNA

URRIAK 16 OSTIRALA
 21:00 · 5€ · Euskaraz

Ane eta musika, musika eta Ane; beti doaz eskutik helduta. Musikari familia batek inguratuta jaio zen eta txikitatik interes handia zuen artearen munduan. 2021ean bere lehen abestia argitaratu zuen eta, orduetik, hainbat herritan eman ditu kontzertuak. Bere estilo musikalak pop-a laztantzen du eta etengabe abesti berriak lantzen

eta sortzen ari da. Izan ere, Anek argi dauka: beti musikari besarkatuta biziko da.

Hasi berriz izeneko diskaren aurkezpen kontzertua eskaintzen digu orain.





Musika

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA BAZTAN GAITEROEKIN

URRIAK 23 OSTIRALA
20:00 · 2€



Zizur Nagusiko
Udal Musika Banda
Banda Municipal de
Música de Zizur Mayor



Errepertorioa:

BANDA:

Consuelo Ciscar - Pasodoble
Highlights from Chess
Indiana Jones Selection

BANDA ETA GAITAK:

San Juan en Laguardia
Variaciones obligadas para dulzaina
Oroipenean
Op. 33 Jota
Sufro

Musika

BULGARIAN NATIONAL RADIO CHILDREN'S CHOIR

XXXI. NAFARROAKO NAZIOARTEKO
ZIKLO KORALA

URRIAK 25 IGANDEA
12:30 · 4€



Zuzendaria: **Venecia Karamanova**

Bulgariako Irrati Nazionaleko Haur Abesbatza 1960an sortu zuen Bulgariako konpositore eta orkestra-zuzendari ospetsuak, Hristo Nedyalkov akademikoak. 2013an hil ondoren, abesbatzaren zuzendari ohi, laguntzaile eta ikasle Venezia Karamanova maistrak zuzendu du abesbatza. 2020tik aurrera, abesbatzako talde artistikoan Michaela Koteva zuzendari gaztea ere aurki dezakegu barnean. Zuzendari gazteak errepertorio klasikoan

eta garaikidean prestatzen du taldea, baita kantata-oratorioan eta operan ere, abesbatzak Sofiako Operaren eta Balletaren produkzioetan eskainiko dituen emanaldietarako.

Abesbatzak 32 herrialdetan baino gehiagotan gozatu du bere musikarekin, eta sari ugari jaso ditu nazioeko eta nazioarteko lehiaketa eta jaialdi askotan. Bi aldiz, 2002an eta 2020an, koruak «Europako Kulturaren enbaxadore» titulua jaso zuen.




Antzerkia
**INSTRUCCIONES
PARA ALBERTO GONZÁLEZ**
ION IRAIZOZ

URRIAK 30 OSTIRALA
20:00 · 80 min · 6€

Zein da Alberto González?

Edozein izaki bizidun beste izaki bizidun baten kopia da, nahiz eta kopia ez den inoiz berdin-berdina, inperfektua da. Batzuetan, inperfekzioak kopia hobetzen du, eta beste batzuetan, okertu. Edonola ere, inperfekzioak egiten du berezi, zerbait berri bihurtzen du.

Alberto Gonzálezek pertsona bat kontratatzen du, bere ordezkari lan egin dezan eta Alberto berria bihurtzeko, bere buruaren kopia inperfektua.



Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

